

Eusko Legebiltzarreko Legelarien Kidegoko karrerako funtzionario gisa sartzeko ohiko hautaketa-prozesurako deialdia, txanda irekian, sarbide orokorraren bidez

Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren 2022ko uztailaren 5eko erabakia betez, agintzen dut:

Lehena. Deialdia egitea Eusko Legebiltzarreko Legelarien Kidegoan karrerako funtzionario gisa sartzeko ohiko hautaketa-prozesurako, txanda irekian eta sarbide orokorraren bidez bi plaza betetzeko, 2022ko enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen Mahaiaren 2022ko ekainaren 14ko erabakiaren ondorioz (Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofiziala, 95.a, 2022ko ekainaren 17koa).

Bigarrena. Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean argitaratzea Eusko Legebiltzarreko Legelarien Kidegoan karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuaren oinarri espezifikoak, Mahaiak 2022ko uztailaren 5ean onartutakoak, jasoko dituen eranskina.

Oinarriak eskuragarri daude ondorengo helbide elektronikoan: www.legebiltzarra.eus/portal/es/web/eusko-legebiltzarra/actividad/boletin-oficial-legebiltzarra.

Hirugarrena. Eusko Legebiltzarrean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuetarako Mahaiak 2022ko ekainaren 28an onartu zituen oinarri orokorrekin bat etorriz, eskabideak aurkezteko epea 2022ko irailaren 2an hasiko da, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu ondoren, eta 2022ko irailaren 21eko 23:59an amaituko da.

Laugarrena. Eusko Legebiltzarreko Mahaiaren 2022ko uztailaren 5eko erabakiaren aurka aukerako berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, organo horretan bertan, hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo zuzenean Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, erabakia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

Eusko Legebiltzarreko lehendakaria
Bakartxo Tejeria Otermin

ERANSKINA

EUSKO LEGEBILTZARREKO LEGELARIEN KIDEGOAN KARRERAKO FUNTZIONARIO GISA SARTZEKO HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRI ESZEFIFIKOAK

1. DEIALDIAREN XEDEA

1.1. Deialdi honen xedea da finkatzea Eusko Legebiltzarreko Legelarien Kidegoko plazak oposizio-lehiaketa sistemaren bidez betetzeko arauak.

1.2. Deialdiko plazak

Bi legelari-plaza, sarbide orokorraren bidez.

Atxikipena: Idazkaritza Nagusia. Zerbitzu Juridikoak.

1.3. Legebiltzarreko Administrazioako kidegoa: Legelariak.

1.4. Betetzeko sistema: oposizio-lehiaketa.





1.5. Eskatutako titulazioa: Zuzenbidean lizentziatu edo graduatu titulua izatea, edo eskuratzeko moduan egotea eskabideak aurkezteko epea amaitzen den egunean.

1.6. Euskarako hizkuntza-eskakizuna: 3.a, nahitaezkoa.

1.7. Lanpostuaren eginkizun nagusiak: II. eranskinean ezarritakoak.

2. ESKABIDEAK AURKEZTEKO EPEA

Eskabideak aurkezteko epea 2022ko irailaren 2an hasiko da eta 2022ko irailaren 21eko 23:59an bukatuko da.

3. HAUTAKETA-PROZESUAREN OINARRIAK

Deialdian jarraitu beharrekoak izango dira, batetik, Eusko Legebiltzarrean karrerako funtzionario gisa sartzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak, Mahaiak 2022ko ekainaren 28an onetsiak eta Eusko Legebiltzarraren Aldizkari Ofizialean 2022ko uztailaren 1eko 98. zenbakian argitaratuak, eta, bestetik, oinarri espezifiko hauek.

4. PARTE HARTZEKO BALDINTZAK, HAUTAKETA-PROZESUAREN GARAPENA ETA LANPOSTUAREN ESLEIPENA

4.1. Plazarako lehiatzaileek oinarri orokorretako 5.1 apartatuan orokorki ezartzen diren eskakizunak bete behar dituzte.

4.2. Eskabidea, oinarri orokorretako 8. apartatuan xedatutakoaren arabera, Eusko Legebiltzarraren www.legebiltzarra.eus eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen www.ivap.euskadi.eus helbide elektronikoen bidez bete behar da.

Internet bidezko eskabidea KZgune publikoen bidez egin ahal izango da. KZguneen zerrenda eta kokapena helbide elektroniko honetan eskura daitezke: www.kzgunea.eus.

Halaber, eskabidea bete ahal izango da Eusko Legebiltzarreko Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzaren bulegoetan, Becerro de Bengoa z.g. helbidean, Gasteizen (eraikin administratiboan), astelehenetik ostiralera, 9:00ak eta 13:00ak bitartean.

4.3. Legelarien Kidegorako azterketa-eskubideen zenbatekoa 20 eurokoa da.

Ordaindu ahal izango da oinarri orokorretako 8.5 apartatuan aurreikusitako moduan eta erakunde hauetan: Kutxabank eta Laboral Kutxa (banka elektronikoan edo sukurtsalean).

4.4. Hautaketa-prozesua eta plazen esleipena arestian aipatutako oinarri orokorretako aginduen arabera egingo dira, eta, orobat, oposizio-aldiko ariketei eta lehiaketa-aldiko ebaluazioari buruz oinarri espezifiko hauetan aurreikusitako arauen arabera.

4.5. Oposizioa gaingitu baina plazarik lortu ez dutenak lan-poltsa batean sartuko dira, aldi baterako lanpostuak betetze aldera.

Antolaketa eta Giza Baliabideen Zuzendaritzak lan-poltsa gehigarriak sortu ahal izango ditu hautaketa-prozesua gaingitu ez, baina prozesuko probaren bat gaingitu dutenekin, hasierako lan-poltsarekin aldi baterako beharren bat betetzea lortzen ez bada.





5. EPAIMAHAI A

Eusko Legebiltzarreko Mahaiak izendatuko ditu kalifikazio-epaimahaiko kideak, oinarri orokorretako 10. apartatuan xedatutakoaren arabera.

Nolanahi ere, hauek izango dira epaimahaiko kideak: Eusko Legebiltzarreko lehendakaria, zeina mahaiburu izango baita; Eusko Legebiltzarreko legelari nagusia; unibertsitateko katedradun bat; autonomia-erkidego bateko legebiltzar bateko, Gorte Nagusietako edo batzar nagusietako legelari bat; Eusko Legebiltzarreko legelari bat; Eusko Legebiltzarreko funtzionario bat, Langileen Batzordeak, haren espezializazioarengatik, proposatua, eta Eusko Legebiltzarreko legelari bat, zeinak idazkari-lanetan jardungo baitu.

6. OPOSIZIO-ALDIKO ARIKETEI DAGOZKIEN ARAUAK

Oposizio-aldiko ariketak ezin izango dira hasi harik eta, gutxienez, sei hilabete igaro arte deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen denetik. Lehenengo ariketaren eguna, ordua eta tokia argitaratuko dira Eusko Legebiltzarren www.legebiltzarra.eus eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen www.ivap.euskadi.eus helbide elektronikoetan, gutxienez bost egun lehenago, betiere. Argitaratu ordez, lehiatzaileei zuzenean eta modu frogagarrian jakinarazi ahal izango zaie, aurreko epe berean. Gainerako ariketak egiteko ondoz ondoko iragarkiak jakitera emango dira lehen aipatutako Interneteko helbideetan, gutxienez 48 ordu lehenago, betiere.

Ariketa guztiak izango dira nahitaezkoak eta kanporatzaileak. Lehenengo eta bigarren ariketak 0 eta 50 puntu arteko puntuazioarekin kalifikatuko dira. Hautaketa-prozesutik kanpo geratuko dira dagokion ariketan gutxienez 25 puntu lortzen ez dituztenak. Hirugarren ariketa 80 punturekin kalifikatuko da, eta 40 puntu lortu beharko dira ariketa gainditzeko.

Edozein gai erantzun gabe utziz gero edo edozein gaitan epaimahaiaren irizpidez 0 puntu ateraz gero, lehiatzailea kanpoan geratuko da.

Balorazio-irizpidetzat hartuko dira zorrotasuna eta gaien ezagutza, batez ere gai hauena: arau, kontzeptu eta erakunde juridikoak, teoria doktrinalak eta jurisprudentzia, bereziki Konstituzio Auzitegiarena. Halaber, aintzat hartuko dira azalpenaren kalitatea eta ariketaren defentsa, batik bat erabilitako terminologiaren argitasuna, koherentzia, sistematizazioa, hitz-etorria eta zehaztasuna. Hirugarren ariketan, gainera, planteatzen den edo diren gaien arrazoiketa analitiko eta sintetikoa baloratuko da, bai eta horietako bakoitzari ematen zaion denbora ere, garrantziaren arabera.

Lehenengo eta hirugarren ariketak, egin ondoren, agerian irakurri beharko dituzte lehiatzaileek epaimahaiaren aurrean. Beren ariketaren testua irakurtzen ez duten oposizio-gileek beren eskubideak galduko dituzte. Irakurketa horretarako, epaimahaiak, betiere gutxienez bi egun lehenago, dei egingo die lehiatzaileei; lehiatzaileek ireki egin beharko dute etsaminak gordeta geratu diren gutun-azala, eta idatzi dituzten orriak irakurri.

Oposizio-aldiko proba bakoitza bukatutakoan, epaimahaiak lehenbailehen argitaratuko ditu behin-behineko emaitzak eta, gehienez ere, 10 egun balioduneko epea ezarriko du erreklamazioak egiteko, epaimahaiaren ebazpena argitaratzen den egunetik kontatzen hasita.

Oposizio-aldiko ariketak

Lehenengo ariketa

Idatzizko azalpen bat egin beharko da, gehienez ere sei orduz, l. eranskinean azaltzen den programako lau gairi buruz.





Bost gai aterako dira zozketaz I.tik V.era bitarteko ataletatik, biak barne, eta beste bost VI.etik XII.era bitartekoetatik, biak barne. Epaimahaiak bi gai aukeratuko ditu, zoriz hautatutako bost gaiko bi multzo horietako bakoitzetik.

Bigarren ariketa

Ahoz azaldu beharko dira sei gai, programako II. ataletik V.era bitartekoetatik (biak barne), gehienez ere 75 minutuko tartean.

Hamar gai aterako dira zozketaz II. eta III. ataletatik, eta beste hamar IV. eta V. ataletatik. Epaimahaiak gai bat aukeratuko du hamarreko lehenengo multzotik, eta bestea oposiziozileak aukeratuko du. Ondoren, epaimahaiak hiru gai aukeratuko ditu hamarreko bigarren multzotik, eta oposiziozileak aukeratuko du laugarrena.

Sei gaiak horrela erabakirik, oposiziozileak 20 minutu izango ditu bere azalpena prestatzeko, eta ezin izango du inolako materialik kontsultatu. Ahozko azalpena egiten ari den bitartean, aurrez prestatu duen eskemaz baliatu ahal izango da, halakorik bada.

Ariketa hau hasiko da lehenengo ariketaren kalifikazioak argitaratu eta ondorengo 30 egun naturalen barruan, zeinak argitara emango baitira bai Eusko Legebiltzarren www.legebiltzarra.eus eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen www.ivap.euskadi.eus helbide elektronikoetan.

Hirugarren ariketa

Bi txosten juridiko idatzi beharko dira, bata Legebiltzarreko dokumentu bat edo gehiago kalifikatzeari eta izapidetzeko onartzeari buruz, eta bestea Konstituzio edo Administrazio Zuzenbideko arazo bati buruz. Kasu bietan, txosten horietan tratatu behar diren egitatezko kasuak eta alderdiak zein diren epaimahaiak zehaztuko du. Oposiziozileek zortzi ordu izango dituzte bi txostenak idazteko.

Ariketa egiteko, beren eskura izango dute epaimahaiak, kasua hori bada, ebazteko entregatzen duen espediente, baita ohiko lege- eta jurisprudenzia-bildumak eta haien aurkibideak (datu-baseak) eta lehiatzaileak berak ekarri nahi duen legegintzako beste edozein material ere, baldin eta argitalpenek testuak hitzez hitz eta bestelako iruzkin edo gehigarriak gabe jasotzen badituzte. Ezein kasutan ezin izango da erabili lehiatzaileek ekarritako azterlan doktrinalik edo ekipo elektronikorik (PCa, tableta eta abar).

Lehiatzaile kopuruaren arabera, epaimahaiak erabaki dezake xede horietarako gaitutako ordenagailu batekin egitea proba.

Ariketa hau hasiko da bigarren ariketaren kalifikazioak argitaratu eta ondorengo 30 egun naturalen barruan, zeinak argitara emango baitira bai Eusko Legebiltzarren www.legebiltzarra.eus eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen www.ivap.euskadi.eus helbide elektronikoetan.

Ariketa zuzentzeko irakurtzen den bitartean, epaimahaiak eskatu ahal izango die oposiziozileei zabal ditzatela beren idazkian azaldutako irizpideak, gai edo irizpenen inguruan.


7. EUSKARAREN HIZKUNTZA-ESKAKIZUNA EGIAZTATZEA

3. hizkuntza-eskakizuna oinarri orokorretako 12. apartatuaren arabera egiaztatuko da.

Egiaztapena egiteko azken eguna izango da merezimenduak aurkezteko epea hasi aurreko eguna.

Euskarako proba egin behar izanez gero, 3. hizkuntza-eskakizuna egiaztatzea bakarrik egongo da bideratuta.

Nolanahi ere, euskararen ezagutza merezimenduak aurkezteko epea hasi baino lehen egiaztatu beharko da, eta, betiere, merezimenduak aurkezteko epe horren barruan justifikatu beharko da agiri bidez.





8. LEHIAKETA-ALDIKO EBALUAZIOARI BURUZKO ARAUAK

Lehiaketa-aldia ebaluatuko da oposizio-aldiko azken ariketa burutu ondoren. Epe bat irekiko da, 10 egun baliodunekoa gutxienez, ariketak gainditu dituztenek merezimenduen frogagiriak ekar ditzaten. Merezimenduak alegatu eta egiaztatuko dira oinarri orokorretako 15. apartatuan xedatutakoaren arabera. Alegatutako merezimenduak eskabideak aurkezteko epea amaitzen denean izan beharko dira, euskarako merezimendurako xedatutakoa izan ezik.

Lehiaketa-aldiaren kalifikazioa ondorengo merezimendu-baremoaren arabera emandako puntuen batura izango da –gehienez, 25 puntu–:

1. Lanbide-esperientzia (10 puntu)

- a) Eusko Legebiltzarrean eta beste legebiltzarretan Legelarien Kidegoko funtzio eta eginkizunetan funtzionario gisa izandako lanbide-esperientziatik 10 puntu emango dira gehienez, 0,15 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- b) Eusko Legebiltzarreko Goi Mailako Teknikarien Kidegoko lanpostuetan funtzionario gisa izandako lanbide-esperientziatik 5 puntu emango dira gehienez, 0,075 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko.
- c) Beste administrazio publiko batzuetan legelari lanpostuan funtzionario gisa izandako lanbide-esperientziatik 2 puntu emango dira gehienez, 0,02 puntu lan egindako hilabete bakoitzeko. Apartatu honetan baloratuko da Legelarien Kidegoari dagozkion zereginak betetzeko egokitasun berezia adierazten duen lanbide-esperientzia; hain zuzen, honako zereginak: aholkularitza juridikoa ematea, txosten juridikoak eta araudi-kontrola egitea, eta konstituzio- edo estatutu-organok epaiketetan defendatzea.

Apartatu horietan ez dira baloratuko hilabetetik beherako zatiak. Zenbaketa egiteko, lan egindako aldien batura egingo da, eta, behin batura hori eginda, ez dira aintzat hartuko hilabetetik beherako zatiak. Ondorio horietarako, 30 egun naturaleko multzoa joko da hilabetetzat.

Ezinbestekoa izango da aritu izaniko instituzio publiko edo erakundearen ziurtagiria aurkeztea. Ziurtagirian agertu beharko dira lanpostuaren izena, egindako lan zehatzak eta haietan aritutako aldia.

Nolanahi ere, Eusko Legebiltzarrean lan egiten duten lehiatzaileek ez dute ziurtagiri hori ekarri beharrik izango erakunde horretako merezimenduei dagokienez.

2. Graduondoko prestakuntza eta titulu ofizialak (5 puntu)

Gehienez ere 5 punturekin baloratuko dira, jarraian adierazten den baremoaren arabera, lanpostuaren eginkizunekin eta horretarako eskatzen den titulazioarekin lotuta dauden eta Unibertsitate, Zentro eta Tituluen Erregistroan (RUCT) inskribatuta dauden titulu akademikoak eta aipatutako eginkizunekin eta titulazioarekin lotutako graduondoko prestakuntza:

-Cum laude doktorea	5 puntu
-Doktorea	3 puntu
-Unibertsitate-master ofiziala	puntu 1
-Lotutako beste goi-mailako titulazio bat	puntu 1

3. Hizkuntzak (5 puntu)





Ingeles, frantses eta alemaneko titulu edo ziurtagiriak baloratuko dira, gehienez ere 5 punturekin, ondorengo baremoaren arabera:

C2 maila	2,5 puntu
C1 maila	1,5 puntu
B2 maila	puntu 1

Ondorio horietarako, aintzat hartuko dira bakarrik Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien baliokidetasuna ezartzeko ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren "Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailen baliokide diren titulu eta ziurtagiriak" eranskinean agertzen diren titulu eta ziurtagiriak.

Hizkuntza beraren maila bat baino gehiagoren ziurtagiria izanez gero, maila altuenekoa bakarrik baloratuko da.

4. Euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna (5 puntu)

Euskarako 4. hizkuntza-eskakizuna izateagatik: 5 puntu. Hizkuntza-eskakizun hori egiaztatu beharko da merezimenduak aurkezteko epea hasi baino lehen.

9. AZKEN KALIFIKAZIOA ETA BERDINKETA HAUSTEKO IRIZPIDEAK

9.1. Azken kalifikazioa

9.1.1. Oinarri orokorretan xedatutakoaren arabera, lehiaztaile bakoitzaren azken kalifikazioa oposizio-aldian eta merezimenduen balorazioan lortutako puntuazioen batura izango da.

9.1.2. Emaizta eta kalifikazio guztiak argitaratuko dira bai Eusko Legebiltzarraren www.legebiltzarra.eus helbide elektronikoan, bai Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearen www.ivap.euskadi.eus helbide elektronikoan. Helbide horien bitartez kontsultak egiteko, NANaren zenbakia eta eskabidearen erreferentzia-zenbakia sartu beharko dira.

9.2. Berdinketa hausteko irizpideak

9.2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 20.1.a) artikulua aplikatuta, 1/2022 Legeko idazkeraren arabera, lehiaztaileek gaitasun bera dutela joko da berdinketa gertatzen bada hautaketa-prozesuaren azken puntuazioan, hau da, proba guztiak egin eta baloratu eta dagozkion merezimenduak batu ondoren.

9.2.2. Berdinketa gertatuz gero, lehentasun-ordena ezarriko da ondorengo irizpideei jarraikiz, bata bestearen ondotik:

1. Oposizio-aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
2. Oposizio-aldiko hirugarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
3. Oposizio-aldiko bigarren ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
4. Oposizio-aldiko lehenengo ariketan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
5. Lanbide-esperientzian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.





6. Lehiaketa-aldian puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
7. Graduondoko prestakuntzan eta titulazioetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.
8. Euskarako 4. hizkuntza-eskakizunaren puntuazioa lortu duenaren alde.
9. Hizkuntzetan puntuaziorik handiena lortu duenaren alde.

I. ERANSKINA


LEGELARIEN KIDEGOAREN GAI-ZERRENDA

I. Zuzenbidearen teoria orokorra (13 gai)

1. Zuzenbidearen iturrien teoria orokorra. Espainiako ordenamendu juridikoan: zerrenda eta antolamendu hierarkikoa.
2. Arau juridikoa. Kontzeptua eta egitura. Arau-motak.
3. Legea: kontzeptu materiala eta formala; betekizunak eta motak.
4. Ohitura, zuzenbidearen bigarren mailako eta autonomiadun iturri gisa; motak; ohituraren froga. Zuzenbidearen printzipio orokorrak; funtzioak. Jurisprudenzia: bere balioa. Autoreen doktrina.
5. Sistema juridiko ezberdinak: sistema erromatar-germanikoa; Common Law sistema.
6. Arau juridikoen aplikazio eta interpretazioa: kontzeptuak, motak, elementuak eta erregelak. Ekitatea. Analogia.
7. Arau juridikoen eraginkortasuna. Lurralde-, pertsona- eta gai-esparrua. Arauen indarraldia; isilbidezko indargabetzea. Zuzenbide iragankorreko arauak. Atzeraeraginik ezaren printzipioa.
8. Harreman juridikoaren subjektua. Gaitasun juridikoa eta jarduteko gaitasuna. Nortasunaren eskubideak.
9. Pertsona juridikoak: izaera eta motak. Pertsona publikoak eta pribatuak.
10. Harreman juridikoak. Subjektu pribatuen arteko harremanak eta subjektu publikoen eta pribatuen artekoak.
11. Eskubide subjektiboa. Egoera juridiko subjektiboak.
12. Eskubideen babes juridikoa. Autotutoretza eta tutoretza jurisdikzionala. Akzio-eskubidea.
13. Zehapen juridikoak.

II. Teoria politikoa eta konstituzio-historia (21 gai)

14. Estatu modernoaren jatorria. Monarkia nazionalak. Subiranotasunaren ideia. Absolutismoaren teoria politikoa. Estatu-aparatua absolutismoan.
15. Nazioa zer den. Nazioa entitate soziologiko gisa eta politikaren subjektu gisa. Nazioaren kontzeptu juridikoak eta soziologikoak.
16. Estatua. Estatu motak eta estatu erak. Estatuaren osagaiak. Estatua eta erregimen politikoa.





17. Estatuaren egitura. Estatu baterakoiak eta estatu federalak. Nazio-estatuaren teoria. Estatu konfederala. Estatu federala. Eskualde-estatu. Autonomien estatu.
18. Estatu Batuetako konstituzio-sistema. Ideia politikoak Amerikaren independentzian. Presidentea eta Kongresua. Batasuneko eta estatuetako botereak. *Cheks and balances* sistema.
19. Britainia Handiko konstituzio-sistema: Koroa, Kabinetea eta Parlamentua. Botere-itzultzea eta erakunde kontsonazionalak (Eskozia, Gales, Ipar Irlanda).
20. Italiako eskualde-sistema. Estatutu arruntak eta araubide berezikoak. Eskualdeen eskumenak eta erakundeak.
21. Alemaniako sistema federala. Landetako konstituzioak. Landen eskumenak eta erakundeak.
22. Estatu liberala. Jatorria eta bilakaera historikoa. Printzipio ideologikoak eta egiturazkoak. Erakundeak. Lehenengo konstituzio-testuak.
23. Zuzenbide-estatu soziala eta egungo konstituzionalismoa. Doktrina politiko klasikoen bilakaera. Zientzia politikoaren eta konstituzio-zuzenbidearen joera berriak.
24. Alderdi politikoak. Kontzeptua. Justifikazio teorikoa. Alderdien funtzioak egitura demokratiko-liberalean. Motak. Zuzeneko interes-ordezkaritza: presio-taldeak. Zuzeneko interes-ordezkaritza: presio-taldeak. Alderdi politikoen finantzaketa eta haren kontrola. Bereziki, Espainiako finantzaketa-sistema.
25. Demokrazia zuzeneko erakundeak. Erreferenduma eta plebiszitua. Herri-ekimena. Zuzeneko demokraziako beste mekanismo batzuk.
26. Hauteskunde-sistemak. Gehiengoko sistemak, sistema proportzionalak eta sistema mistoak. Hauteskunde-sistemaren eragina indar politikoetan.
27. Sozialismoa. Estatu sozialistak: konstituzionalismoa eta erakundeak. Estatu sozialistak: konstituzionalismoa eta erakundeak. Krisia eta haren ondorioz estatu sozialistak desagertzea Europan.
28. Faxismoa. Pentsaera politikoa eta esperientzia historikoak. Autoritarismoa gaur egun. Arrazismoa eta xenofobia.
29. Estatu liberalaren jatorriak Espainian. Konstituzio-ideia; 1812ko Konstituzioa.
30. Konstituzionalismo liberal zibila: 1834ko Errege Estatutua; 1837ko eta 1845eko konstituzioak. Konstituzionalismo liberal politikoa, 1869 eta 1876.
31. Konstituzionalismo demokratikoa: 1931ko Konstituzioa eta 1936ko Euskadiren Autonomia Estatutua. Legezketasun konstituzionalaren haustura: Francoren diktadura eta konstituzionalismoaren demokrazia-eskakizuna.
32. Konstituzioaren kontzeptua. Hitzaren adiera-aniztasuna. Konstituzioaren adiera formala eta esanahi ideologikoa. Kritika historikoak eta ideologikoak eta egungo planteamenduak. Konstituzioen sailkapena.
33. Konstituzioa arau positibo gisa. Konstituzioen edukia.
34. Konstituzioaren zurruntasuna. Konstituzio-erreformarako prozedurak. Erreformarako mugak. Dakartzan arazo juridikoak. Konstituzioaren defentsa.

III. Konstituzio- eta estatutu-zuzenbidea (42 gai)





35. Espainiako 1978ko Konstituzioa. Ezaugarriak, oinarrizko edukia, egitura eta printzipio konstituzionalak. Balio nagusiak. Konstituzio-erreformarako prozedura.
36. Konstituzioa arau juridiko nagusi gisa. Konstituzionaltasun-blokea. Konstituzioaren interpretazioa. Ordenamendu juridikoaren egitura.
37. Iturri-sistema Konstituzioan (I): lege organikoak. Autonomia-estatutuak.
38. Iturri-sistema Konstituzioan (II): lege arrunta. Konstituzioaren 150. artikuluan aurreikusitako legeak.
39. Iturri-sistema Konstituzioan (III): autonomia-erkidegoen legegintza-ahala. Estatuaren legekiko artikulazioa: eskumen-printzipioa. Legegintza-ahal autonomikoaren mugak.
40. Iturri-sistema Konstituzioan (IV): lege-indarra duten botere betearazlearen xedapenak. Lege-dekretuak. Legegintzako dekretuak.
41. Iturri-sistema Konstituzioan (V): erregelamenduak egiteko ahala. Zuzenbidearen beste iturriak.
42. Nazioarteko ordenamendu juridikoaren eragina Konstituzioak ezartzen duen iturri-sisteman. Nazioarteko eta nazioz gaindiko zuzenbideko arauen balioa. Nazioarteko tratatuak: balioa eta onesteko prozedurak. Giza eskubideen arloko nazioarteko tratatuak. Europar Batasuneko zuzenbidea eta Konstituzioa.
43. Zuzenbideko estatu sozial eta demokratikoa 1978ko Konstituzioan. Printzipio informatzaileak. Botere publikoak eta herritarrak Konstituzioaren mende egotea. Herritarren eta haien osatzen dituzten taldeen askatasuna eta berdintasuna sustatzea. Honako printzipio hauek: legezkotasuna, arauen arteko hierarkia, arauen publikotasuna, xedapen zehatzaileen atzeraeraginik eza, segurtasun juridikoa, erantzukizuna eta botere publikoen nahierakeriaren debekua.
44. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (I). Kontzeptua eta motak. Arau-bermeak. Titulartasuna. Mugak. Eraginkortasuna. Interpretazioa. Eginbeharrak.
45. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (II). Berdintasuna. Edukia. Bereizkuntza legítimo eta diskriminazioa. Botere publikoen ekintzarentzako mugak. Diskriminazio-eragile direla susmarazten duten kategoriak.
46. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (III). Babes judizial eraginkorra izateko eskubidea. Edukia eta irismena.
47. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (IV). Arlo pertsonaleko eskubideak. Bizitzarako eta osotasun fisiko eta moralerako eskubidea. Erlijio- eta pentsamendu-askatasuna. Ohorea eta norberaren irudia. Intimitatea. Komunikazioen sekretua. Informatikaren aurreko babesa. Adierazpen- eta informazio-askatasuna. Askatasun pertsonalerako eta segurtasunerako eskubidea.
48. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (V). Askatasun publikoak. Biltzeko eskubidea. Elkartzeko eskubidea. Kargu publikoetara heltzeko eskubidea eta parte hartzeko eskubidea. Eskariak egiteko eskubidea.
49. 1978ko Konstituzioko oinarrizko eskubideak (VI). Irakaskuntza-askatasuna eta hezkuntzarako eskubidea. Unibertsitate-autonomia. Sindikatu-askatasuna. Greba-eskubidea. Jabetza-eskubidea. Enpresa-askatasuna.
50. Eskubideak eta askatasunak etetea: alarma-, salbuespen- eta setio-egoerak. Gizabanakoei eskubide jakin batzuk etetea.





51. Estatuburua. Konstituzioaren araberako esanahia eta motak. Konstituzio-monarkia. Monarkiaren konfigurazioa Espainiako Konstituzioan.
52. Gobernua. Erregimen politiko batzuetako eta besteetako egitura. Izendapena, iraupena eta erantzukizunak, bereziki Espainiako gaur egungo legebiltzar-erregimenari dagokionez. Gobernuko presidentea.
53. Botere judiziala 1978ko Konstituzioan. Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia. Auzitegi Gorena. Botere judizialaren antolaketa: jurisdikzio-ordenak eta instantziak.
54. Gorte Nagusietarako eta Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetarako indarrean dagoen hauteskunde-zuzenbidea: Konstituzioan eta Estatutuan jasotakoak. Hautagai eta hautatzaile izateko eskubidea. Euskadiko hauteskunde-legedia. Bateriaezintasuna eta hautaezintasuna. Hauteskunde-deialdiak. Hauteskunde-administrazioa, prozedura eta bermeak. Hauteskunderen kontrola.
55. Konstituzioko eredu ekonomikoa: enpresa-askatasunaren eta merkatu-ekonomiaren babesa Konstituzioan. Barne-merkatuaren antolamendua; printzipio orokorrak eta gaiari buruzko eskumenen banaketa. Lehiaren Euskal Agintaritzak. Sektore publikoa egituratzeko ereduak. Enpresa publikoa. Plangintza ekonomikoa; helburu edo xede instituzionalak. Konstituzioko mugak.
56. Konstituzio-justizia (I). Konstituzio-justiziako sistemak. Espainiako Konstituzio Auzitegia: aurrekariak, antolaketa eta funtzionamendua.
57. Konstituzio-justizia (II). Konstituzio Auzitegiaren epaiak. Haien balioa eta irismena. Boto partikularrak. Konstituzio-prozesuetako prozedura-arau komunak.
58. Konstituzio-prozesuak (I). Konstituzionaltasun-kontrola. Konstituzio-kontrakotasuneko errekurtoa. Konstituzio-kontrakotasuneko auzia. Autoauzia.
59. Konstituzio-prozesuak (II). Eskumen-gatazkak. Autonomia-erkidegoen egintza eta ebazpenen aurkaratzea. Konstituzio-organoen arteko gatazkak. Tributuei buruzko foru-arauak aurkaratzeko prozedurak. Foru-autonomiaren eta toki-autonomiaren defentsarako gatazkak.
60. Konstituzio-prozesuak (III). Konstituzio-babesaren errekurtoa. Betekizun prozesalak. Izapidetzea. Egintza etetea. Epaiaren edukia.
61. 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren aurrekari historikoak. Estatutuaren aldeko mugimendua. Proiektuak. 1936ko Estatutua. Euskadiko aurreautonomiaren araubidea.
62. Eskubide historikoak 1978ko Konstituzioan. Lehen xedapen gehigarria. Eskubide historikoen berme instituzionala. Konstituzio Auzitegiaren interpretazioa.
63. 1979ko Euskal Herriko Autonomia Estatutua. Egitura, oinarrizko edukiak eta funtsezko printzipioak. Haren aldagaiztasuna: erreformatzeko prozedura. Autonomia-erkidegoen arteko hitzarmenak.
64. Lurraldea eta biztanleria Euskal Autonomia Erkidegoa eratzeke osagai gisa. Auzotasuna. Euskaldun izaera politikoa. Hizkuntza ofizialak: euskara Estatutuan.
65. Lehendakaria: erakunde-mailan duen tokia. Hautatzea, kargu-uztea eta eginkizunak.
66. Eusko Jaurlaritza: egitura, antolaketa eta funtzionamendua. Erantzukizuna.





67. Euskadiko lurralde historikoak. Antolaketa eta eskumenak. Hauteskunde-araubidea. Batzar nagusiak eta foru-aldundiak. Eskumen-banaketa erakunde erkideen eta foru-organoen artean.
68. Eusko Legebiltzarraren organo mandatudunak: Arartekoa eta Herri Kontuen Euskal Epaitegia. Eratzeko modua eta funtzioak. Gatazkak arbitraje bidez konpontzea: Arbitraje Batzordea.
69. Euskadiren eskumenen tipologia. Eskumen eskusiboak. Lege-garapenerako eskumenak. Betearazpen-eskumenak.
70. Euskadiren eskumena segurtasun publikoaren eta segurtasun pribatuaren arloan. Ertzaintzaren araubide juridikoa. Segurtasun Batzordea. Babes zibila. Espetxe-sistema.
71. Euskadiren eskumenak hezkuntzan, unibertsitatean eta kulturen. Gizarte-komunikabideak.
72. Euskadiren eskumenak justizia-administrazioari buruz. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia. Beste berezitasun batzuk. Eskumenak.
73. Euskadiren eskumenak osasunean, gizarte-segurantzaz, gizarte-zerbitzuetan, lanean eta lan-harremanetan. Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeak.
74. Euskadiren eskumenak lurraldearen antolamenduan, etxebizitzan, ingurumenean, azpiegituretan, garraioetan, uraren arloan eta obra hidraulikoetan. Nekazaritza eta abeltzaintza. Industria, merkataritza eta turismoa.
75. Euskadiren eskumenak zuzenbide zibilean, elkarrekin eta fundazioetan, zuzenbide publikoko korporazioetan eta tituludun lanbideetan, balio-merkatu eta kontratazio-zentroetan eta erregistro publikoetan. Kreditu-erakundeak eta aurrezki-kutxak.
76. Legegintzarako eskuordetza Euskadin. Legegintzako herri-ekimena eta lurralde historikoen legegintza-ekimena: eremua eta prozedura.

IV. Zuzenbide parlamentarioa (35 gai)

77. Legebiltzarraren funtzioak. Bilakaera. Parlamentarismoaren ezaugarriak demokrazia garaikideetan.
78. Legebiltzarra, alderdiak eta gizarte zibila. Alderdi-estatuaren teoria. Ordezkaritza-mandatuak, haren oinarriaren legimitimitatea eta hura aurkaratzea.
79. Legebiltzarraren egitura. Ganbera bakarreko eta bi ganberako erabidea konstituzio-sisteman. Bigarren ganberak zuzenbide konparatuan; bereziki, Gorte Nagusiei dagokienez.
80. Eusko Legebiltzarra: osaera, funtzioak, antolaketa eta funtzionamendua.
81. Zuzenbide parlamentarioaren iturriak. Erregelamendua; beste iturri batzuk. Ohitura eta aurrekari parlamentarioak. Zuzenbide parlamentarioaren interpretazioa.
82. Eusko Legebiltzarraren Erregelamendua. Izaera juridikoa. Egitea eta erreformatzea. Egitura. Erregelamenduaren interpretazioa.
83. Ganberak biltzeko deialdia: autodeialdia eta deialdi automatikoak eta beharrezkoak. Aldizkako bilerak eta bilkura-aldiak. Diputazio Iraunkorra.
84. Bilkurak: motak, bilkura presentzialak eta telematikoak. Egun eta ordu baliadunak. Gai-zerrenda: prestaera eta esanahia. Quoruma eta haren motak. Epeak zenbatzea eta presakotzat jotzea. Dokumentuen erregistroa.





85. Ganberak eratzea. Kredentzialak. Bateriaezintasunak. Legebiltzarkideek uko egitea eta legebiltzarkideak ordezteak.
86. Eusko Legebiltzarreko kideen estatutu juridikoa. Abantaila parlamentarioak. Legebiltzarkideen eskubide eta betebeharrak. Legebiltzarkideentzako zehapenak.
87. Ganberen gobernu-organoak. Sistema nagusiak. Legebiltzarreko lehendakaritza. Mahaia: garrantzia eta izaera; hautatzea eta funtzioak. Bozeramaileen Batzarra.
88. Talde parlamentarioak eta haien izaera juridikoa. Eratzea eta estatutua. Ganberen funtzionamenduan duten eragina. Talde Mistoa.
89. Legebiltzarreko batzordeak: funtzioak, motak eta osaera. Ponentziak. Legebiltzarreko taldeartekoak.
90. Ganberen Osoko Bilkura. Esanahi orokorra. *Committee of the Whole House* erakundea. Eusko Legebiltzarraren Osoko Bilkura.
91. Egintza parlamentarioak: teoria orokorra. Legegintzako egintzak eta legegintzaz bestekoak. Egintza parlamentarioen aurkako errekurtsoak: barne-errekurtsoak; Konstituzio Auzitegiko eta auzitegi arruntetako errekurtsoak.
92. Eusko Legebiltzarreko legegintza-prozedura. Legegintza-ekimena. Agerraldiak. Zuzenketak. Lege-proiektu eta -proposamenak erretiratzea. Presako prozedura.
93. Legegintza-prozedura bereziak. Prozedura laburtu eta deszentralizatuak. Beste prozedura berezi batzuk.
94. Eztabaida parlamentarioa. Sistemak. Hitz egiteko txandak; lehendakariaren etenak: arrazoiak; taldeek edo legebiltzarkideek atera ditzaketen gaiak. Oztokatze parlamentarioa. Adeitasun parlamentarioa.
95. Botazioak. Egiteko moduak. Dei gabeko eta dei bidezko botazioak. Botoa emateko hurrenkera. Sistema arruntak eta bereziak. Boto-eskuordetza eta boto telematikoa. Berdinketak.
96. Legeak onestea. Berretsi, promulgatu eta argitaratzea. Arlo horretan indarrean dagoen zuzenbidea.
97. Legebiltzarraren funtzio ekonomikoak. Jatorria eta bilakaera. Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege-proiektua izapidetzeko prozedura. Kredituak gehitzea edo diru-sarrerak murriztea dakarten zuzenketak eta lege-proposamenak. Herri Kontuen Euskal Epaitegiarekiko harremanak.
98. Informazioa ganberetan. Informazio-tresnak: inkestak eta informazio publikoak. Hearingen sistema. Informazio-bilkurak. Azterketa-batzordeak. Ikerketa-batzordeak.
99. Legebiltzarkideek informazioa jasotzeko eta dokumentazioa eskuragarri izateko duten eskubidea. Goi-kargudun eta funtzionarioen agerraldiak.
100. Gobernuaren erantzukizun politikoaren ohiko prozedurak: lehendakaria hautatzea, zentsura-mozioa eta konfiantza-arazoa.
101. Ganberen galdeketa-eskubidea: interpelazioak eta galderak.





102. Politika- eta gobernu-ekintza sustatzeko prozedura parlamentarioak: Gobernuaren komunikazioak. Politika orokorreko eztabaidak. Legez besteko proposamenak, mozioak eta ebazpenak. Legegintza eskuordetuaren kontrol parlamentarioa. Lege-dekretuen kontrola.
103. Eusko Legebiltzarraren harremanak konstituzio-organoekin. Ekimenak Gorte Nagusietan, Estatuko Gobernuan eta Konstituzio Auzitegian izapidetzeko prozedura parlamentarioak. Euskadi ordezkatzan duten senatariak izendatzea. Eusko Legebiltzarrak beste organo batzuetan dituen ordezkariak izendatzeko prozedura orokorra. Arartekoarekiko harremanak.
104. Legebiltzarraren agintaldiaren iraungipena. Legebiltzarra desegiteko eskubidea. Moduak eta eraginak.
105. Legebiltzarraren finantza-autonomia. Aurrekontua onetsi eta gauzatzea. Legebiltzarraren antolaketa- eta administrazio-autonomia. Administrazio parlamentarioaren egintzak.
106. Eusko Legebiltzarraren barne-araubidea: Pertsonalaren Estatutua. Oinarrizko ezaugarriak. Sartzea eta uztea. Egoerak. Eskubideak, betebeharrak eta bateraezintasunak. Diziiplina-araubidea. Egintza parlamentarioen kontrola langile arloan. Legegintza-teknikako laguntza: Eusko Legebiltzarreko legelarien eginkizunak. Aholkularitza tekniko juridikoa; jurisdikzio-organoetan eta Konstituzio Auzitegian ordezkatu eta defendatzea. Legelari nagusia. Legebiltzarreko administrazioaren zuzendaritza-eginkizunak.
107. Hizkuntza ofizialen erabilera Eusko Legebiltzarrean. Erregelamenduko arauketa. Euskararen erabileraren hizkuntza-normalizazioa Administrazioan. Printzipio orokorrak. Hizkuntza-eskakizuna. Hizkuntza-eskakizunen derrigortasuna.
108. Legebiltzarreko eztabaiden erreprodukzioa. Bilkura-egunkariak eta aldizkari ofizialak. Herritarrek eskuragarri izatea Legebiltzarreko informazioa. Gardentasun-arauak Eusko Legebiltzarraren Erregelamenduan.
109. Araugintza-teknika (I). Planteamendu doktrinalak eta arauketa positiboak. Araugintza-teknikako jarraibideak: izaera eta edukia. Joera berriak arauen premia, bideragarritasuna eta eraginkortasuna egiaztatzeke. Izaera orokorreko xedapenak egiteko prozedura Euskadin.
110. Araugintza-teknika (II). Arauen argitasun semantikoa: arauetako hizkuntza eta hizkuntza arrunta. Oinarrizko kontzeptu juridikoen harmonizazioa. Testu elebidunak. Arauen eduki homogeneoa eta osoa. Testuak kodifikatzea eta eguneratzea.
111. Araugintza-teknika (III). Arauen egitura formala. Arauak ordenamendu juridikoan txertatzea: erregela materialak eta erregela formalak.

V. Administrazio-zuzenbidea (32 gai)

112. Administrazio publikoa. Administrazioa eta Estatuaren funtzioak. Administrazioa eta Estatuaren botereak. Administrazioa eta Gobernua. Administrazio-zuzenbidearen kontzeptua eta izaera juridikoa. Zuzenbide pribatuko administrazio-jarduna.
113. Administrazio-erregelamendua. Kontzeptua eta justifikazioa. Baliozkoa izateko baldintzak. Banakako indargabetze-ezintasunaren printzipioa. Erregelamendu motak. Legez kontrako erregelamenduak. Autonomia-erkidegoen eta beste erakunde publikoen erregelamenduak.
114. Harreman juridiko-administratiboa. Administrazio publikoen nortasun juridikoa. Estatuko Administrazioa. Autonomia-erkidegoak. Erakunde publikoen tipologia. Erakunde publikoen gaitasun juridikoa.





115. Administratua eta haren gaitasun juridikoa. Eskubide publiko subjektiboak eta administrazio-ahalak. Eskubide subjektibo baldintzatuak eta interesak.
116. Administrazioaren legezkotasunaren printzipioa. Ahalak legez ematea. Ahal arautuak eta diskrezionalak. Diskrezionalitatearen kontrola.
117. Administrazio-prozedura erkidea eta herritarrek zerbitzu publikoak eskuragarri izatea bide elektronikoz: printzipio orokorrak, interesdunak, abstenitzea eta errekusatzea. Herritarren eskubideak. Administrazio-erregistroak. Herritarrek zerbitzu publikoak eskuragarri izatea bide elektronikoz: printzipio orokorrak. Herritarren eskubideak administrazio publikoekin harremanak bide elektronikoz izateko.
118. Administrazio-prozedura erkidea eta herritarrek zerbitzu publikoak eskuragarri izatea bide elektronikoz. Administrazio-prozeduraren faseak. Administrazio-prozeduraren hasiera, antolamendua, instrukzioa eta amaiera.
119. Administrazio-egintza: kontzeptua eta motak. Egintza politikoak eta egintza diskrezionalak. Administrazio-egintzaren osagaiak. Administrazio-egintzen eraginkortasuna. Administrazio-isiltasuna.
120. Deuseztasunen teoria administrazio-zuzenbidean. Administrazio-egintzen erabateko edo zuzenbide osoko deuseztasuna. Administrazio-egintzak administrazio-bidetik berrikustea. Deuseztagarritasuna. Errebokatzea.
121. Gardentasuna eta gobernu ona. Gardentasunaren printzipio orokorrak. Aplikazio-eremua. Publikotasun aktiboa. Informazio publikoa eskuratzea. Sektore publikoko informazioa berrerabiltzea. Gobernu onaren printzipio orokorrak. Zerbitzu-kartak.
122. Datu pertsonalen babesa (Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamendua, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzko arauak ezartzen dituen). Aplikazio-eremua. Kontzeptuak eta printzipioak. Datu pertsonalak tratatzeko zilegitasuna eta tratamenduaren arduradunaren betebeharrak. Tratamenduko jardueren erregistroa edo inbentarioa. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren funtzioak. Eusko Legebiltzarreko datuak babesteko ordezkaria.
123. Emakumeen eta gizonen berdintasuna. Euskal botere publikoen jarduna arautu eta gidatu behar duten printzipio orokorrak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan. Araudian eta administrazio-jardueran berdintasuna sustatzeko neurriak.
124. Ondasun publikoen teoria orokorra; jabari publikoa; ondare-ondasunak; herri-ondasunak; ondare nazionala. Euskadiren ondarea: hura osatzen duten ondasunak. Ondasunak eskuratzea, besterentzea eta lagatzea. Euskadiren ondarea atxikitzea eta desatxikitzea eta defendatzea.
125. Nahitaezko desjabetzea: desjabetze-ahala eta prozedura; bermeak.
126. Administrazioaren ondare-erantzukizuna. Justizia Administrazioaren funtzionamenduaren ondoriozko erantzukizuna. Estatu legegilearen erantzukizuna.
127. Administrazioak esku hartzeko teknikak: baimena; emakida; eskubide-mugatzea; nahitaezko prestazioak; betebeharrak eta zamak; zehapenak.
128. Administrazio publikoen laguntzen eta dirulaguntzen araubidea. Xedea eta helburua. Diruz laguntzearen printzipioak eta mugak. Dirulaguntza eta laguntza publikoen onuradunak. Emateko oinarri arautzaileak eta prozedurak. Dirulaguntzen justifikazioa. Dirulaguntzak eta laguntzak itzultzea.
129. Administrazio-kontratuak: administrazio-kontratuak eta Administrazioaren kontratu pribatuak indarrean dagoen ordenamenduan. Kontratazio-prozedura. Kontratazioaren bermeak.





130. Administrazio-kontratuen amaiera. Betetzea. Deuseztasuna. Desegitea. Kontratua lagatzea eta azpikontratua.
131. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioa. Indarrean dagoen sistema. Jurisdikzioaren hedadura eta mugak. Alderdiak. Postulazioa. Administrazioaren defentsa.
132. Administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren xedea. Prozedura. Epaia. Epaien aurkako errekurtsoak. Konstituzioaren 53.2 artikuluan aurreikusitako prozedura berezia.
133. Administrazio publikoaren organoak. Motak. Izaera juridikoa. Organoen arteko harremanak.
134. Administrazio publikoen arteko lankidetzak: sektore-konferentziak, lankidetzak-harremanak, partzuergoak. Toki-administrazioarekiko eta Europar Batasunarekiko harremanak.
135. Administrazio-antolaketaaren printzipio juridikoak: eskumena. Administrazio-hierarkia. Koordinazio-printzipioa.
136. Funtzionario publikoak (I). Kontzeptua eta motak. Funtzionarioaren eta Administrazioaren arteko harremanaren izaera juridikoa.
137. Funtzionario publikoak (II). Hautaketa, prestakuntza eta administrazio-karrera. Funtzionarioen egoera juridikoak. Eskubideak eta betebeharrak. Funtzionarioen erantzukizuna; motak: penala, zibila eta administratiboa. Funtzionario-harremana amaitzeko moduak (bereziki, Euskadin indarrean dagoen zuzenbideari dagokionez).
138. Estatuaren Administrazioa. Estatuaren Administrazioaren organo zentralak. Ministro Kontseilua. Gobernuaren batzorde eskuordetuak. Presidente, presidenteordea, ministroak, estatu-idazkariak, idazkariordeak, zuzendari nagusiak eta idazkari nagusi teknikoak. Estatuaren Administrazio periferikoak. Gobernuak autonomia-erkidegoetan dituen ordezkariak. Gobernuaren ordezkariordeak.
139. Estatu Kontseilua. Aurrekariak, bilakaera eta antolaketa. Eskumena; prozedura. Kontsulta-egintza eta haren balio juridikoa. Kontsulta-organo autonomikoak; bereziki, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoa.
140. Autonomia-erkidegoen antolaketa. Autonomia-erkidegoetako Administrazioaren lurralde-antolaketa.
141. Toki-administrazioa indarrean dagoen legedian. Toki-erakunde motak. Udalerria. Haren eskumenei buruzko ideia orokorra. Udal-agintari eta -erakundeak; bereziki, Autonomia Erkidegoak eta bertako foru-erakundeak Euskadiko toki-administrazioan dituzten eskumenei dagokienez.
142. Probintzien antolaketa eta administrazioa. Probintziako agintari eta erakundeak. Toki-erakundeen ondasunak, jarduerak eta zerbitzuak.
143. Erakunde-administrazioa. Administrazio horren tipologia. Erakunde publikoak, bereziki Estatuaren agentziak. Beren jardueran zuzenbide pribatuaren mende dauden zuzenbide publikoko entitateak. Sozietate publikoak. Administrazio independenteak eta haien problematika konstituzionala. Erakunde-administrazioa Euskadiko ordenamendu juridikoan.

VI. Nazioarteko eta Europar Batasuneko zuzenbidea (14 gai)

144. Nazioarteko subjektuei buruzko teoria orokorra. Nazioarteko erakundeen nortasun juridikoaren arazoa. Gizabanakoa nazioarteko zuzenbidearen aurrean. Estatuak. Nazioarteko egintza juridikoak; bereziki, tratatuen zuzenbidea.





145. Nazioartea. Nazioarteko erakundeak: kontzeptua eta motak. Nazioarteko erakundeen egitura. Nazio Batuen Erakundea: egitura eta funtzioak. Eskualde-erakundeak. Europako Kontseilua: egitura eta funtzioak. Europako Segurtasun eta Lankidetzako Erakundea. Ipar Atlantikoko Tratatuaren Erakundea.
146. Giza eskubideen nazioarteko babesa. Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala eta geroztikako itunak. 1950eko Erromako Hitzarmena. Europako Kontseilua eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia. NBEko Giza Eskubideen Kontseilua. Asilo-eskubidea, atzerriartasuna eta aberrigabeen egoera juridikoa. Nazioarteko Justizia Auzitegia.
147. Europar Batasuna: erakunde-sistema, ezaugarri orokorrak. Europar Batasunari eskumenak esleitzeko sistema eta estatu kideen eskumenak. Organoak: Kontseilua eta Batzordea. Antolaketa, funtzionamendua eta eskumenak. Kontseilu Europarra.
148. Europako Parlamentua. Jatorriak, osaera eta funtzioak.
149. Ekonomia- eta diru-politika. Euroa. ECOFIN. Europako Banku Zentrala. Europako Inbertsio Bankua. Kontuen Auzitegia.
150. Europar Batasuneko legegintza-prozedura. Legegintza-prozedura bereziak.
151. Europar Batasuneko zuzenbidearen iturriak: jatorrizko zuzenbidea, zuzenbide eratorria, zuzenbide osagarria eta beste iturri batzuk; bereziki, Europar Batasunaren Tratatuari eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuari dagokienez.
152. Europar Batasuneko zuzenbidearen ezaugarriak: zuzeneko aplikagarritasuna eta zuzeneko eragina. Lehentasuna. Batasuneko zuzenbidearen aplikazioa: agintari estatal eta azpiestatalen parte-hartzea. Konstituzio Auzitegiaren interpretazioa.
153. Europako integrazio-prozesua eta Estatuko eta autonomia-erkidegoetako botereen barne-oreka. Eskumenen ordena konstituzionalaren gaineko eragin orokorrak. Autonomia-erkidegoen parte-hartzea Europar Batasunaren erabakien eraketan eta haien exekuzioan. Subsidiarotasun-printzipioa eta alerta goiztiarren mekanismoa. Eskualdeetako Lantaldea.
154. Legebiltzar nazionalak Europar Batasunean. Haien funtzioak Batasunaren erabakiak hartzeko prozesuan. Legegintza-proposamenak subsidiarotasun- eta proportzionaltasun-printzipioei egokitzen zaizkien kontrolatzea. Legebiltzar nazionalen beste funtzio batzuk.
155. Batzordeak Europar Batasuneko zuzenbide bateratuaz egiten duen aplikazioa kontrolatzea. Batzordearen eskudantziak. Kontrol motak: a) estatu kideen gainean; b) eragile ekonomikoen gainean. Zehapenak Batasuneko zuzenbidea ez betetzeagatik.
156. Justizia Auzitegiak Europar Batasuneko zuzenbidez egiten duen aplikazioa kontrolatzea. Errekurtso motak: kontzeptua, izaera eta prozedura. Epaitu aurreko arazoa.
157. Europar Batasunaren politikak. Barne-merkatua. Aduana-batasuna eta salgaien zirkulazio askea. Pertsona, zerbitzu eta kapitalen zirkulazio askea. Lehiaren zuzenbidea.

VII. Finantza-zuzenbidea (16 gai)





158. Administrazio publikoaren jardura ekonomiko-finantzarioa. Ogasun publikoaren jatorria, kontzeptua eta izaera. Haren oinarri teorikoak eta metodologikoak.
159. Tributu-boterea eta tributu-ahala. Konstituzio- eta tributu-printzipioak. Tributu-arauen aplikazio eta interpretazioa.
160. Tributu-zuzenbidearen iturriak Espainiako Estatuan. Tributuei buruzko Lege Orokorra: esanahia eta printzipio integratzaileak. Tributuei buruzko foru-arau orokorrak.
161. Diru-sarrera publikoak. Kontzeptua eta motak. Espainiako tributu-sistema: ikuspegi orokorra.
162. Zerga: kontzeptua. Egiturazko printzipioak. Zuzeneko eta zeharkako zergapetzea.
163. Autonomia-erkidegoen finantzaketa. Printzipio orokorrak. Zerga eta Finantza Politikako Kontseilua. Autonomia-erkidegoen baliabideak. Lurralde arteko konpentsazio-funtsa. Autonomia-erkidegoen tributu-boterea: mugak.
164. Euskadiko Ogasuna (I): Estatutuan jasotakoa eta arau erregulatzaileak. Euskadiko Ogasun Nagusiaren diru-sarrerak. Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauak. Printzipio orokorrak. Zerga arloko harmonizazio-, koordinazio- eta lankidetzahalak. Zerga Koordinaziorako Organoa. Osaera eta funtzioak.
165. Euskadiko Ogasuna (II): Kontzertu Ekonomikoaren araubidea antolamendu juridikoan. Kontzertuaren izaera eta ezaugarriak. Euskadiren eta Estatuaren arteko tributu-harremanen arauketa Kontzertu Ekonomikoan, arauak eta printzipio orokorrak, zerga-harmonizazioa eta Estatuarekiko lankidetzaren printzipioa.
166. Euskadiko Ogasuna (III): Kontzertu Ekonomikoan jasotako zergak eta haien arauketa. Foru-erakundeen aragintza-eskumenak tributu itunduei dagokienez. Lotuneak.
167. Euskadiko Ogasuna (IV): Euskadiren eta Estatuaren arteko finantza-harremanen arauketa Kontzertu Ekonomikoan, printzipio orokorrak. Kupoak: kontzeptua eta zehazteko metodologia.
168. Euskadiko Ogasuna (V): Euskal Autonomia Erkidegoko erakunde erkideen eta lurralde historikoetako erakundeen arteko harreman ekonomiko-finantzarioak. Baliabide-banaketa euskal erakundeen artean. Herri Dirubideen Euskal Kontseilua.
169. Euskadiko Ogasuna (VI): Estatuko Administrazioaren eta euskal erakundeen arteko harremanetarako organoak Kontzertua aplikatzeko. Kontzertu Ekonomikoaren sistema Europar Batasunaren esparruan. Kontzertuaren Legea eta haren aldaketak onesteko prozedura; kupoak zehazteko eta foru-erakundeek erakunde erkideei egin beharreko ekarpenen legeak onesteko prozedura.
170. Gastu publikoa: kontzeptua, sailkapena eta mugak. Gastuaren eragin ekonomikoak. Metodoak eta finantzaketa.
171. Aurrekontua: kontzeptua, izaera eta motak. Aurrekontu-printzipioak eta haien bilakaera. Estatuaren aurrekontu orokorrak: kontzeptua, edukia eta ordenamendu juridikoaren iturriak; aurrekontu-programazio eta -kudeaketarako printzipio eta erregelak; bereziki, aurrekontu-egonkortasunaren eta aurrekontu-programazioaren printzipioa.
172. Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontuak. Arautegia. Edukia eta egitura. Egiteko prozedura. Aldaketa, exekuzioa eta likidazioa.





173. Euskal Administrazioaren finantza-jardueraren kontrola. Motak. Barne-kontrola. Kontrol parlamentarioa. Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren kontrola.

VIII. Zuzenbide zibila (21 gai)

174. Zuzenbidearen kontzeptua. Zuzenbide naturala eta zuzenbide positiboa. Zuzenbide objektiboa eta subjektiboa. Zuzenbide publikoa eta pribatua.
175. Zuzenbide zibila: bilakaera eta gaur egungo edukia. Kode Zibila eta legedi osagarria.
176. Euskal zuzenbide zibila. Aurrekari historikoak, foru-zuzenbideko lurraldeak, 1959ko Bilduma eta 1992an bilduma hori euskal zuzenbidean sartzea. Euskal zuzenbide zibilaren iturri eta printzipioak. Aplikazio-eremua. Euskal auzotasun zibila. Ondare-zuzenbidearen printzipioak. Oinordetza-araubidea. Ezkontzako ondasunen araubidea eta familia-harremanak haustura- eta banantze-kasuetan.
177. Eskubide subjektiboen erabilera: moduak. Hedadura eta mugak: eskubide-abusuaren doktrina eta eskubide-talka. Eskubide-aldaketa, -transmisioa eta -azkentzea. Uko egitea. Xedatzea.
178. Egitate eta egintza juridikoak. Negozio juridikoa. Itxurazko negozioa eta negozio fiduziariora. Negozio juridikoaren funtsezko osagaiak.
179. Denbora eta harreman juridikoa. Preskripzioa eta motak. Preskripzio azkentzailearen kontsiderazio berezia. Iraungipena.
180. Ondare-eskubideak. Kreditu-eskubideak eta eskubide errealak. Eskubide errealak: kontzeptua eta motak.
181. Jabetza-eskubidea: gaur egungo irizpideak. Jabariaren edukia eta ahalmenak. Jabetza-eskubidearen babesa: erreibindikazio-akzioa: kontzeptua, ezaugarriak eta baldintzak. Jabetza deklaratzeko akzioa. Ukatze-akzioa.
182. Edukitza: izaera juridikoa. Motak eta eraginak. Eskubide-edukitza. Edukitza eskuratzea eta galtzea. Ondasun higigarrien edukitza.
183. Gozamen-eskubidea: kontzeptua, ezaugarriak eta motak; edukia. Gozamendunaren eta jabe soilaren eskubideak eta betebeharrak gozamen normalean. Erabilera- eta biztante-eskubideak.
184. Zortasunak: doktrina orokorra. Zortasun pertsonal eta borondatezkoak. Legezko zortasunak.
185. Zentsu-eskubide errealak: motak, kontzeptua eta ezaugarriak Espainiako zuzenbidean. Azalera-eskubidea: kontzeptua eta izaera juridikoa. Ezaugarriak eta osagaiak.
186. Berme-eskubide errealak. Bahitura: kontzeptua, eraketa, edukia eta azkentzea: antikresia.
187. Hipoteka: kontzeptua, ezaugarriak eta motak. Edukia eta eraginak. Hipoteka-eskubide errealaren babesa. Zordunen babesa.
188. Jabetza Erregistroa. Hipoteka-printzipioak. Titulu eta eskubide inskribagarriak. Inskripzioa eta haren eraginak. Prebentziozko oharpenak.
189. Betebeharra: bilakaera eta izaera. Osagaiak. Subjektuak, objektua eta lotura. Betebeharren sorburuak. Betebehar naturalak Kode Zibilean.





- 190. Kontratua eta haren osagaiak. Baldintza orokorrak. Kontratuen eraginkortasunik eza. Deuseztasuna, deuseztagarritasuna, hutsaltzea eta desegitea: kausak, ezaugarriak eta eraginak.
- 191. Kontratuen interpretazioa. Kontratuen sailkapena. Aurrekontratua. Hirugarrenen aldeko estipulazioak.
- 192. Salerosketa-kontratua. Izaera, osagaiak eta burutzea. Jabari-erreserbarako ituna. Geroratutako prezioagatik baldintza desegilea.
- 193. Errentamendu-kontratua. Zerbitzu-errentamendua eta obra-errentamendua.
- 194. Kontratuz kanpoko erruz sortutako betebeharrak. Kontzeptua eta oinarria. Haien tratamendua Kode Zibilean. Kalte morala. Erantzukizun objektiboa: kontzeptua, oinarria eta gure zuzenbide positiboko irizpidea.

IX. Zuzenbide prozesala (6 gai)

- 195. Prozesua: izaera eta oinarria. Motak; prozesuaren funtsezko batasunaren arazoa. Konstituzioan jasotako printzipioak.
- 196. Ordena jurisdikzionalak. Jurisdikzioaren azkentzea eta mugak. Eskumen-gatazkak.
- 197. Prozesu zibilararen ezaugarri nagusiak. Prozesu arruntak eta bereziak; bereziki, oinarritzko eskubideak bermatzeko prozesu zibilar dagokionez.
- 198. Prozesu penalaren ezaugarri nagusiak. Prozesu arruntak eta bereziak.
- 199. Epaia. Arlo zibileko eta penaleko errekursoak.
- 200. Lan-jurisdikzioa. Izaera eta printzipio informatzaileak. Espainiako legediaren sistema. Organo jurisdikzionalak. Eskumena. Jurisdikzio militarra.

X. Zuzenbide penala (8 gai)

- 201. Zuzenbide penala. Kontzeptua, edukia eta funtzioa. Zigorren helburuak eta segurtasun-neurriaren funtzioa. *ius puniendi*aren printzipio inspiratzaileak: mugak. Legezketasun-printzipioa zigor arloan. Analogiaren debekua. Lege penala. Lege penalaren indarra denboran eta espazioan.
- 202. Delitua eta haren kontzeptua teoria batzuen eta besteen arabera eta Kode Penalaren arabera. Delituen sailkapena. Delituaren teoria juridikoari buruzko ideia orokorrak: tipikotasuna, antijuridikotasuna; erruduntasuna eta graduak; egozgarritasuna.
- 203. Erantzukizuna aldarazten duten inguruabarrak. Inguruabar salbuesleak, aringarriak eta astungarriak. Delitu-pilaketa, delitu jarraituak, ohikoak eta iraunkorrak.
- 204. Zigorren kontzeptua eta helburuak. Zigor motak indarreko kodearen arabera. Aplikazio-erregelak. Zigor eskubide-kentzaileak. Zigorak betetzea, kentzea eta txikitzea. Erantzukizun penala azkentzea. Preskripzioa.
- 205. Delituagatik erantzukizun zibila. Oinarria eta motak. Subjektu erantzuleak. Errurik gabeko erantzukizuna. Erantzukizun zibila azkentzea: kausak eta eraginak. Zuhurtziagabekeria zigorgarria. Falta penalak eta falta administratiboak. *Non bis in idem* printzipioa.





206. Konstituzioaren aurkako delituak. Estatuko erakundeen eta botere-banaketaren aurkako delituak. Konstituzioak bermatutako oinarritzko eskubideez eta askatasun publikoez baliatzean egindako delituak. Alderdi politikoen legez kontrako finantzaketa.
207. Administrazio publikoaren kontrako delituak. Autoritatearen eta funtzionario publikoaren kontzeptua onorio penaltetarako. Prebarikazioa eta beste portaera bidegabe batzuk. Desobeditzea eta laguntza ukatzea. Dokumentu-zaintzako desleialtasuna eta sekretu-haustea. Funtzionario-eroskeria. Influentzia-trafikoa. Bidegabeko erabilera. Iruzurra eta legearen aurkako ordainarazpenak. Debekatutako negoziazioak, eta funtzioa betetzean egindako gehiegikeriak.
208. Ogasun publikoaren eta Gizarte Segurantzaren kontrako delituak, langileen eskubideen kontrakoak.

XI. Lan-zuzenbidea (7 gai)

209. Lana egitate sozial eta zuzenbidearen gai gisa. Lanaren harreman juridikoa; ezaugarri bereziak: inoren konturako lana eta menpekotasuna.
210. Lanari buruzko konstituzio-arauak. Langileen Estatutua. Lan arloko beste xedapen batzuk. Euskadiren eskumenak lan arloan. Lanbide.
211. Lan-kontratua: kontzeptua, izaera juridikoa, motak, forma eta iraupena.
212. Soldata: kontzeptua eta motak. Soldata eta bestelako ordainsariak. Gutxieneko soldata. Soldata-bermeak.
213. Langileen ordezkaritza kolektiborako eta enpresetan batzartzeko eskubideak. Sindikatuetan elkartzeko eskubidea. Gatazka kolektiboak, greba eta ugazabek lantegia ixtea. Administrazio publikoko langileek parte hartzea beren lan-baldintzen negoziazioan.
214. Gizarte Segurantzak: kontzeptua eta printzipioak. Espainiako gizarte-segurantzak sistema. Kudeaketa. Prestazioak.
215. Laneko arriskuen prebentzioa. Xedea, aplikazio-eremua, eskubideak eta betebeharrak. Gatazkak ebazteko prozedurak.

XII. Merkataritza-zuzenbidea (10 gai)

216. Merkataritza-zuzenbidearen edukia: sistemak. Merkataritza-egintza teoriarik eta Espainiako zuzenbidean. Merkataritzako enpresa. Merkataritza-zuzenbidearen iturriak. Merkataritzako Kodea. Legedi berezia. Merkataritza-zuzenbidearen beste iturri batzuk.
217. Publizitatea merkataritza-zuzenbidean. Merkataritza Erregistroa: printzipioak eta antolaketa. Merkataritza-publizitate ofizialaren beste tresna batzuk. Enpresaburuen kontabilitatea. Liburuak eta urteko kontuak.
218. Sozietate anonimoa. Historia eta azterketa kritiko orokorra. Espainian duen araubidea. Eratzeko moduak. Sozietate-eskritura eta estatutuak.
219. Sozietate anonimoaren organoak. Sozietate anonimoaren araubide ekonomikoa: sozietate-ekitaldia; balantzea eta kontuak. Mozkina. Kontu-azterlaritza.
220. Erantzukizun mugatuko sozietatea. Lan-sozietate anonimoak. Kooperatibak: bereziki, Euskadin aplikatzeko den araubide juridikoa.
221. Espainiako finantza-sistemaren araubide juridikoa. Espainiako Bankua. Banku pribatuak. Kreditu ofizialaren antolaketa eta araubidea. Burtsa.





222. Aseguru pribatuen sozietateak. Inbertsio kolektiboko erakundeak. Elkarren bermerako sozietateak. Enpresen elkarre eta batasunak.
223. Merkataritza-betebeharrari buruzko teoria orokorra. Merkataritzako kontratuak: izaera, burutzea, forma, froga eta interpretazioa.
224. Merkataritzako salerosketa. Aseguru-kontratua. Banku-kontratuak.
225. Konkurtso-zuzenbidea. Aurrekari historikoak. Konkurtsoa deklaratzeko eta horren eraginak. Konkurtso-administrazioa. Masa aktiboa eta pasiboa zehaztea. Konkurtso-administrazioaren txostenaren publikitatea eta aurkaratzea. Konkurtsoaren irtenbideak eta prozeduraren bukaera.

II. ERANSKINA

LEGELARI-LANPOSTUAREN EGINKIZUN NAGUSIAK

- Osoko bilkuretarako eta batzorde eta ponentzien bilkuretarako Osoko Bilkura eta Batzordeen Atalak egiten dituen lan administratiboak gainbegiratzea.
- Ekimenak talde parlamentarioei bidaltzea, Eusko Legebiltzarreko Mahaiak aztertu dituenean.
- Osoko bilkuretarako eta batzorde eta ponentzien bilkuretarako gai-zerrendaren eta deialdiaren berri ematea.
- Osoko bilkuretan eta batzorde eta ponentzien bilkuretan aholkularitza juridikoa ematea.
- Ponentzien txostenak eta batzordeen irizpenak egitea.
- Batzordeek onetsitako testuak prestatzea eta argitaratu aurretik gainbegiratzea.
- Osoko bilkuren eta batzorde eta ponentzien bilkuren aktak egitea.
- Legebiltzarren ordezkariak Legebiltzarretik kanpo joandakoan dituzten jarduerak kudeatu eta koordinatzea eta Mahaiari adieraztea.
- Legelari nagusiak edo Legebiltzarreko Mahaiak eskatutako txosten juridikoak egitea.
- Eusko Legebiltzarra eta Legebiltzarreko edozein organo ordezkatu eta aldezte, Mahaiaren aginduz, Konstituzio Auzitegian, beste jurisdikzio-organotzat eta Arbitraje Batzordean.
- Lehendakariak, Mahaiak, Osoko Bilkurak edo legelari nagusiak agindutako goi-mailako beste edozein aholkularitza-, azterketa- eta proposamen-lan edo laguntza juridikoko beste zeinahi lan.

